

ASTIGARRAGAKO HAPOREN 5. ALDAKETA PUNTUALA 22. HEA "Ubarburu Zabalpena"



ERANSKINAK

2020 URRIA



ASTIGARRAGAKO UDALA



AURKIBIDEA

ERANSKINAK

1. ERANSKINA- PROIEKTUAREN EBALUAKETA GENERO-IKUSPEGITIK _____ 1
 - 1.- SARRERA _____ 1
 - 2.- GENERO-IKUSPEGITIK GARRANTZIRIK EZ DUELA JUSTIFIKATZEN DUEN TXOSTENA_2

2. ERANSKINA - PROIEKTUAREN EBALUAZIOA ERAGIN SOZIOLINGUISTIKOAREN IKUSPEGITIK _____ 5

3. ERANSKINA - FORU ALDUNDIKO INGURUMEN ZUZENDARITZA NAGUSIKO INGURUMENENKO ZUZENDARI NAGUSIAREN, 2019KO ABENDUAREN 9KO TXOSTENA. ___9

1. ERANSKINA- PROIEKTUAREN EBALUAKETA GENERO-IKUSPEGITIK

1.- SARRERA

Otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, 18.1 artikuluan ezartzen duenez, *"Arauk, planak, programak eta politika publikoak formulatzeko beste tresna batzuk egitean eta aplikatzean, emakumeen eta gizonen berdintasunaren helburua modu aktiboan kontuan hartzeko betebeharra dute euskal herri-agintek"*.

18.1 artikulua honek Amsterdango Tratatuak Europar Batasuneko estatu kideetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak aplikatzeko printzipio gidari gisa ezarritako genero-ikuspegiaren printzipioari erantzuten dio.

Pertsonak hainbat behar eta asmo dituzte bizi diren, elkarrekin bizi diren eta lan egiten duten ingurune fisikoari dagokionez, beren eguneroko bizitzan beren gain hartzen dituzten genero-rolen ondorioz. Helburua da, beraz, genero-ikuspegia hiri-espazioaren antolamenduan eta hiriaren plangintzan txertatzeak aukera ematea aukera-berdintasunerako eta emakumeen eta gizonen baliabide guztietarako sarbiderako bidean aurrera egiteko.

Horregatik, herri administrazioek, hiria diseinatu eta antolatzerakoan, aintzat hartzen dute genero-ikuspegia.

Hala nabarmentzen du Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak 31.3 artikuluan:

"3. *Herri-administrazioek genero-ikuspegia hartuko dute kontuan hiriaren diseinuan, hiri-politikan, hirigintza-plangintza zehaztu eta gauzatzean, eta, horretarako, herritarren parte-hartzea eta gardentasuna sustatu eta bultzatuko duten mekanismoak eta tresnak erabiliko dituzte bereziki."*

Gobernu Kontseiluak, 2012ko abuztuaren 21ean egindako bilkuran, 40/2012 ebazpena onartu zuen, abuztuaren 21ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena. Horren bidez, Gobernu Kontseiluak hartutako Erabakia argitaratzea xedatzen da. Erabaki horren bidez, *"Generoaren arabera eraginaren aurretzeko ebaluazioa egiteko eta desberdintasunak ezabatzeko eta sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak onartzen dira"*.

Ebazpen horren eranskinean, lehenengo gidalerroan: generoaren arabera eraginari buruzko txostena xedapen orokorren proiektuetan, hau da, lege edo erregelamendu mailako arau juridikoen proiektuetan, honako hauek izan ezik: *"D) jada indarrean dauden beste arau batzuk aldatzea xede dutenak, emakumeen eta gizonen egoerari dagokionez aldaketa funtsezkoa ez bada"*

Horregatik, Gobernu Kontseiluaren abuztuaren 21EKO 40/2012 EBAZPENAREN jarraibideen II. eranskinaren arabera, GENERO-IKUSPEGITIK GARRANTZIRIK EZ DUELA JUSTIFIKATZEKO TXOSTEN BAT idatzi da.

2.- GENERO-IKUSPEGITIK GARRANTZIRIK EZ DUELA JUSTIFIKATZEN DUEN TXOSTENA

2.1.- ARAU-PROIEKTUAREN EDO ADMINISTRAZIO-EGINTZAREN PROPOSAMENAREN IZENA

Astigarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Ubarburu ZABALPENA 22 HEaren aldaketa puntuala

2.2.- PROPOSAMENAREN HELBURU OROKORRAK

HAPO aldatzeko dokumentu honen xedea, nagusiki, honako hauetan oinarritzen da:

- 22. HEA "Ubarburu Zabalpena" desklasifikatzea, lurzoru urbanizaezin gisa sailkatuz eta HAPOko antolamendu-unitateen tipologietan sailkatuz – Desklasifikatutako lurzorua –
- 6.1.6 artikulua sartzea zortasun aeronautikoak arautzeko

2.3.- GENERO-IKUSPEGITIK GARRANTZIRIK EZ IZATEAREN JUSTIFIKAZIOA

Genero-ikuspegia kontuan hartuta, ondoriozta daiteke izapidetzen ari den HAPOren aldaketa puntuala **EZ** dela garrantzitsua, honako arrazoi hauengatik:

- Lurzorua desklasifikatzen da, eta, beraz, lurzoru urbanizaezina handitzen da, eta ez da sortzen gizakiek esku hartzeko lurzoru berririk.
- Zortasun aeronautikoen araudiak ez du garrantzirik genero-ikuspegitik.

Beraz, ondoriozta daiteke proposamenak ez duela inolako eraginik berdintasunaren ikuspuntutik, eta are gutxiago eragin negatiboa edo berdintasunaren aurkakoa, ez zuzenean, ez zeharka, ez gizonengan ez emakumeengan.

2. ERANSKINA -

PROIEKTUAREN EBALUAZIOA ERAGIN SOZIOLINGUISTIKOAREN IKUSPEGITIK

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikulua, "Toki-erakundeek eta udalerriek euskararen erabilerari dagokionez dituzten eskumenak" izenekoak, honako hau ezartzen du 7. zenbakian:

"Udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu edo plangintzak onesteko prozeduran, ekimen horiek euskararen erabileraren normalizazioari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da, eta ebaluazio horren emaitzen arabera egoki irizten zaizkien neurriak proposatuko dira."

2/2016 Legearen 7. artikulua udalerriek euskararen erabilerari dagokionez dituzten eskumenak arautzen ditu, eta udal-zerbitzuetan erabilera eta normalizazioa sustatzeko eskumena ematen die, bai eta beren lurralde-eremuan euskararen erabilera sustatu eta dinamizatzeko eskumena ere.

Alderdi hori izateko arrazoia da lurralde- eta hirigintza-izaera duten programa, plan eta dokumentuetan, baldin eta, berez, formulazio eta indarrean jartze hutsak nahikoa gaitasun ematen badu biztanleek lurraldearen hazkunde-mugimendu-okupazio fluxuak arautu, banatu eta programatzeko, biztanle-kopuru esanguratsu bati eragiten dioten eskala edo magnitudeetan.

Astigarragako udal-mailan arreta jarrita, hirigintzak udalerriko errealitate soziolinguistikoan duen eraginak bere azterketa- eta diagnostiko-une prozesala du plangintza orokorra berrikusteko prozesu ziklikoen esparruan, baita plangintza orokorraren berrikuspen partzialeko edo aldaketa puntualeko dokumentuetan ere – are garapen-plangintzan ere –, **tokiko biztanleengan duten tamaina eta potentziagatik nabarmen eragiten dutenean.**

Euskararen erabilera normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren 51. artikulua honako hau xedatzen du:

1.- Ez da bidezkoa hizkuntza-inpaktua ebaluatzea honako kasu hauetan:

- a) Plan edo proiektuen funtsezko ez diren aldaketak
- b) Hizkuntza-inpakturik ez duten planak onartzea eta proiektuak baimentzea edo gaitzea

Aldaketa honen kasuan, egungo errealitate soziolinguistikoak ez du eraginik hizkuntza-ikuspegitik, eta hori honako irizpide hauen arabera egingo da:

- Eremu honetan ez da aurreikusten biztanleria-gehikuntzarik, izaera naturala eta/edo landatarra duelako eta lurzoru urbanizaezintzat jotzen delako hirigintzan.
- Eremuan ez da etxebizitza edo industria berririk planteatzen; area horretan, egun dagoen Ubarburu baserria baino ez da mantentzen.

Azken batean, Plan Orokorraren Aldaketa puntual honek EZ du inolako eraginik udalerriko egoera soziolinguistikoan.

ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA

IRISMEN DOKUMENTUA

Planaren/proiektuaren izena: Ubarburu zabaltzea

Eragin eremua: Astigarragako HAPOn 22. HEA

Egitasmoaren helburua Astigarragako HAPOn 22. HEA lurzoru urbanizaezintzat sailkatzea da eta egitasmo horrek tokiko biztanleria kopuruan/bisitari kopuruan eta egoera soziolinguistikoan izan dezakeen eragina neurtzeko irismen dokumentua egitea eskatu zaio Astigarragako Udalari.

HAPOn egin beharreko aldaketak ez duenez ez biztanleria ez bisitari kopuruan ez egoera soziolinguistikoan eraginik izango edo eragina oso txikia izan daitekeenez, ez da beharrezkotzat jotzen hizkuntza-eraginaren ebaluaziorako indizeen kalkulua egitea ezta hizkuntza-inpaktuaren azterlana egitea ere.

Irismen dokumentu hau egitasmoaren espedienteari gehituko zaio, balioa izan dezan.

Astigarragan, 2020ko uztailaren 6an

Amaia Usabiaga

Kultura eta Euskara teknikaria



**3. ERANSKINA -
FORU ALDUNDIKO INGURUMEN
ZUZENDARITZA NAGUSIKO
INGURUMENENKO ZUZENDARI
NAGUSIAREN,
2019KO ABENDUAREN 9KO
TXOSTENA.**



2017ko martxoaren 31ean Astigarragako Udalaren kontsulta bat dela eta, Ingurumeneko Zuzendaritza Orokorra honek informatu egin zion Udalari Astigarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Testu Bateginaren HIE 22 "Ubarburu Zabalpena"ri buruzko Aldaketak 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legean eta 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuan ezartzen diren ingurumen-ebaluazioaren izapide bat ere ez zuela jarraitu beharko.

Aldaketa onartzea galarazi duen izapidetze-akats formal baten ondoren, Udalak 2019ko abenduaren 3ko idatziz jakinarazi egin du aipatutako aldaketaren espediente berriz bultzatu nahi duela akatsa konpontzeko, eta pasa den epea dela eta eskatzen dio Zuzendaritza honi berriz esatea ea aldaketak goian aipatutako araudian ezarritako ingurumen ebaluazioaren izapideren bat jarraitu behar duen ala ez.

Planteatutako aldaketaren helburuak bera izaten jarraitzen du, hau da: HIE 22 "Ubarburu Zabalpena" Eremua (78.600 m²) birsailkatzea programatutako lurzoru hiritargarritik (jarduera ekonomikoetarako) lurzoru urbanizaezinera pasatuz (HAPOn definitutako antolamendu-unitateen tipologiaren arabera sailkatuko da).

Bidalitako dokumentazioa aztertu eta gero, aurreikusten da aldaketak ingurumenean ondorio nabarmenak izan ditzaketen kasuetan egon gabe jarraitzen duela, 2012ko urriaren 16ko 211/2012 Dekretuko 4. artikulua eta 2013ko abenduaren 9ko 21/2013 Legeko 6.1 eta 6.2 artikuluen arabera, eta ondorio horiek ez direla sortuko ere 21/2013 Legeko V. Eranskinean ezarritako ebaluatzeko irizpideak aplikatu eta gero. Beraz, Astigarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Testu Bateginaren HIE 22 "Ubarburu Zabalpena"ri buruzko aldaketak aipatutako artikuluetan ezarritako ingurumen izapide bat ere ez zuen jarraitu beharko.

Azkenean aipatzea erabaki hau Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren ezinbesteko edo lotesleko erabaki juridikotzat ezin dela hartu, eta zuzenbidean hobeto oinarritutako beste edozein irizpideren menpean gelditzen dela.

Ante una consulta del Ayuntamiento de Astigarraga, con fecha de 31 de marzo de 2017 esta Dirección General de Medio Ambiente informó al Ayuntamiento que la modificación del Texto Refundido del Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga referente a la A.I.U. 22 "Ubarburu Zabalpena" no estaría sometida a ninguno de los procedimientos de evaluación ambiental estratégica de planes establecidos en la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, ni en el Decreto 211/2012, de 16 de octubre.

Tras un defecto formal de tramitación que ha impedido su aprobación, el Ayuntamiento de Astigarraga informa por escrito de 3 de diciembre de 2019 que quiere impulsar de nuevo el expediente de la mencionada modificación para subsanar el defecto advertido, y solicita a esta Dirección que debido al tiempo transcurrido vuelva a determinar si la modificación debe de ser sometida o no a alguno de los procedimientos de evaluación ambiental señalados en la normativa anterior.


La modificación planteada sigue teniendo como objetivo el reclasificar el ámbito de la A.I.U.22 "Ubarburu Zabalpena" (78.600 m²) de suelo urbanizable programado (para actividades económicas) a suelo no urbanizable (categorizándolo según las tipologías de unidades de ordenación definidas en el PGOU).

Tras el análisis de la documentación aportada, se observa que en la modificación se sigue sin dar ninguno de los supuestos que implican que puede tener efectos significativos sobre el medio ambiente según lo dispuesto en el artículo 4 del Decreto 211/2012, de 16 de octubre, y en los artículos 6.1 y 6.2 de la Ley 21/2013, de 9 de diciembre, ni que puedan producirse esos efectos tras la consideración y aplicación de los criterios de evaluación establecidos en el Anexo V de la Ley 21/2013, por lo que la modificación del Texto Refundido del Plan General de Ordenación Urbana de Astigarraga referente a la A.I.U. 22 "Ubarburu Zabalpena" no estaría sometida a ninguno de los procedimientos ambientales regulados en los mencionados artículos.

Finalmente, señalar que esta conclusión no implica un posicionamiento jurídicamente determinante o vinculante de la Dirección General de Medio Ambiente al respecto, y se formula sin perjuicio de criterio mejor fundado en Derecho.

Donostia, 2019ko abenduaren 9a

INGURUMENEN KUZENDARI NAGUSIA
LA DIRECTORA GENERAL DE MEDIO AMBIENTE



ASTIGARRAGAKO ALKATE JAUNA
ASTIGARRAGAKO UDALA



Egiatzapen Kode Segurua: **JAKI057182b5-1302-499e-9e5d-cbe9df23ac22**

Dokumentu honen osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiatzapen kode segurua egoitza elektronikoan: <https://egoitza.gipuzkoa.eus/eks>